

IX. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

IX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko xedez Andoaingo Udalak izendatutako Epaimahaiak, Jose Antonio Pérez, Andoaingo Alkatea eta Mahaiburua dena, Miren Azkarate, Allande Boutin, Anjel Lertxundi, Koldo Ordozgoiti, Iñaki Zabaleta, eta Idazkari lanetan eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe jardun duen Patxi Baztarrikak osatu duten Epaimahaiak alegia, ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea adostu du:

1.- Bi helburu nagusiokin sortu zuen Andoaingo Udalak 1988an *Rikardo Arregi Kazetaritza Saria*: alde batetik, kazetaritza ere euskaraz egiteko pizgarri bat kaleratzea, eta, bestetik, garai hartan dagoeneko egiten zen euskarazko kazetaritzari bultzada ematea. Hori guztia, ordea, prentsa idatziaren esparruan.

Iaz, berriz, Saria sortu eta zortzi urte geroago, tarteko urte horietan euskaraz egindako kazetaritzak aurrerapauso nabarmenak eman zituela iritzita, egoera berrira egokitu beharra ikusi zuen Andoaingo Udalak, eta, ondorioz, oinarriak aldatu zituen neurri batean.

Aldaketa horietan nagusietakoa prentsa idatzira mugatu beharrean irrati-telebistetako lanak ere Sariaren baitan jasotzea izan zen. Epaimahai honek, bere aldetik, prentsa idatziko erreportaia eta artikuluak irrati eta/edo telebistako saioekin alderatzea eta neurtzea oso zaila gertatu zitzaionez, ondorengo urteetarako egokiagoa litzatekeela irrati/telebistako erreportaiantzat sari-atal berezitua sortzea aholkatu zion Udalari. Eta, halaxe, aurtan irrati edo telebistako erreportaiantzako sari-atal propioa sortu da.

2.- Edozein eratarera ere, Udalak Sariari ezarritako bi helburu nagusiek bere horretan jarraitu dute aurtengoan ere: batetik, *kalitatea* bultzatzea, eredugarri irizten diren lanak sarituz, eredugarri hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako. Bestetik, *berrikuntza* bultzatzea, kalitatea eta berrikuntza txanpon beraren alde biak baitira.

Aipatutako helburu nagusi horiek eta oinarrietan jasotako irizpide orokorrak kontutan hartuta burutu du Epaimahaiak bere lana, eta erabaki ditu sariak, beti ere kontutan soil-soilik kazetaritza-balioa hartu duelarik.

Hala eta guztiz ere esan behar da, iaz prentsa idatziko erreportaia eta artikuluak irriati eta/edo telebistako saioekin alderatzea eta neurtzea zaila izan bazen, aurtan uste baino zailagoa gertatu dela irratikoak eta telebistakoak elkarren artean bereiztea. Benetan zaila izan da bi hedabide nagusi horien, irriatiaren eta telebistaren, arteko aukera egitea. Irratiarena izan da Epaimahaiaren aurtengo aukera, nahiz eta telebistako erreportaia bikain ugari eduki duen esku artean.

3.- Sariak erabakitzeko prozedurari dagokionez, esan behar da, **“saiakera laburra”, “komunikabideen berrikuntza”, “erreportaia idatzia”, “ikusentzunezko erreportaia” eta “baloraziozko kazetaritza”** ataletan ez dela ezinbestez bete beharreko baldintza norberak bere lanak aurkeztea. Epaimahaiak bere begitik egin du argitaratutakoaren jarraipen eta hautaketa lana, aurkeztutako lanak izan ala ez. Saritutakoen artean bada aurkeztu gabe aukeratua izan denik. Nolanahi ere, lanak aurkez zitzaten dei berezia egin zitzaizen kazetariei, eta erantzuna bikaina izan da, Epaimahaiak espresuki eskertu nahi duena.

Esan beharrekoa da eta hona, ondoren, sari-atal bakoitzean epaimahikideek aztergai izan dituzten lanen kopuruak, autoreek berek aurkeztutakoak eta epaimahaikide bakoitzak azterketarako proposatutakoak, guztiak, kontuan hartuta emandako kopuruak: **“erreportaia idatzia”** atalean 38 lan, **“ikusentzunezko erreportaia”** atalean 28 erreportaia, **“saiakera laburrean”** 17 artikulu eta hitzaldi, **“komunikabideen berrikuntza”** atalean 7 txosten eta **“baloraziozko kazetaritzan”** 118. Guztira, beraz, 208 lan izan ditu aztergai Epaimahaiak.

Oraindik hasi berriak diren kazetarientsat edo hastear daudenentsat bereziki aurtan sortutako **“kazetari berria”** atala da lanak aurkeztea ezinbestekoa zuena. Guztira 49 izan dira atal honetan autore gazteek aurkeztu dituzten idazlanak.

4.- Honako hau da, sariei dagokienez, Epaimahaiak hartu duen erabakia:

* **4.1.- “Kazetari berria”** ataleko saria, Epaimahaiak aho batez erabakitakoa eta 225.000,- pezetaz hornitutakoa. Sari-atal hau berria da aurtan. Kazetaritzaren hastapenetan dabiltzanei zuzendutako saria da, eta lehen kazetari-altxor apartak diren herrietako aldizkarietara mugatzen zen saria orain hedabide guztietara zabaldu da, nahiz eta kazetari berrietara mugatu. Beste ezeren aurretik

Epaimahaiak adierazi nahi du, kazetaritza jardunean hasi berriak direnen eta oraintxe hasten ari direnen lanak aztertzerakoan lan bikain ugarirekin egin duela topo, hasi berrienak baino gehiago eskarmentu handiko kazetarienak diruditen lanekin alegia. Eta saria erabakitzerakoan oso kontuan hartu da saritutako erreportaia hainbat testigantza eta informazio ugari bilduz baina, aldi berean, egitura eta planteamendu periodistiko nabarmenaz osatua izatea.

+ Saritutako erreportaia: *“Bereizketetan denak galtzaile”*, 1997ko urtarrilaren 12an *Euskaldunon Egunkarian* argitaratua.

+ Autorea: *Jakes Goikoetxea* jauna.

* **4.2.-“Baloraziozko kazetaritza”** ataleko saria, Epaimahaiak gehiengoz erabakitakoa eta 425.000,- pezetaz hornitutakoa. Ikus dezagun, hitzez hitz emanda, oinarriek atal honetaz diotena: *“prentsa idatzian argitaratutako zutabeen eta irratian edo telebistan plazaratutako iritzizko emanaldi laburren artean Epaimahaiaren iritzian hoberena denari emango zaio (...) idazkera edo estiloa, mezu edo iritzi propioaren funtsa hitz gutxitan baina aldeberean beharbeste sakontasunez azaldu izana eta idatziaren bizitasun edo indarra hala nola gaurkotasuna hartuko ditu kontuan”* Epaimahaiak. Eta hori da Epaimahaiak egin duena.

Zutabea da saritutako lana. Irismen zabaleko kontzeptuak, gizarte-bizitza zabalari dagozkionak, giza-eskubideak... horiek guztiak estilo intimistan bizi-bizi jorratzen dituen zutabea. Eta gaurkotasun handia duena, zorigaitzez.

+ Saritutako artikulua: *“Marta”*, 1997ko otsailaren 14an *Euskaldunon Egunkariaren Nafarkaria*-n argitaratutakoa.

+ Autorea: *Josetxo Azkona* jauna.

* **4.3.- “Erreportaia idatzia”** ataleko saria, Epaimahaiak aho batez erabakitakoa eta 425.000,- pezetaz hornitutakoa. Hona oinarriek diotena: *“sari hau erabakitzerakoan Epaimahaiak besteak beste eta batez ere estiloa, orijinaltasuna, datu-bilketaren exhaustibotasuna eta zailtasuna hartuko ditu kontuan”*.

Irizpide horiek, jakina, erabat betetzen ditu saritutako erreportaiak. Gerra zibilari buruzkoa da. Baina kontuan hartutako irizpide guztien artean honako hauek azpimarratu nahi ditu Epaimahaiak: gerra zibilaren gaineko azterketa egiterakoan, datu historikoen deskribapen soilak berekin ohi duen hoztasunean geratu ordez, sufrimendu itzela nozitu zuten gizon-emakumeen sentimenduen mundua islatzen du erreportaiak. Eta hori kazetaritzak berezko bezain zail dituen ikerketa eginez eta estilo freskoa erabiliz egiten du. Aipatzekoa da, halaber, gerra zibilaren azterketa

gaurko ikuspegitik egiten duen erreportaia sail baten barruan txertatzen dela saritutakoa.

+ Saritutako erreportaia: *“Nafarroa, 1936. Uzta gorria”*, 1996ko irailaren 29an *Euskaldunon Egunkarian* argitaratutakoa.

+ Autoreak: *Luis Fernandez* eta *Josu Chueca* jaunak.

* **4.4.- “Saiakera laburra”** ataleko saria, Epaimahaiak aho batez erabakitakoa eta 425.000,- pezetaz hornitutakoa. *“Baloraziozko kazetaritza”* izenez ezagutzen dugun atalarekin batera, saiakera laburrarena da Sari honi izena eman dion Rikardo Arregi zenak jorratutako jeneroa. Oinarrietan ezarritakoaren arabera, fenomeno eta gertakizun puntaletatik areago doazen artikulua eta hitzaldi idatziak hartu behar dira kontutan, eta *“egileak aztergaiari buruz egindako hausnarketa edo balorazio propioaren sakontasuna eta zorrotasuna, hala nola idazkeraren egokitasuna, aberastasuna eta kalitatea izango ditu kontuan Epaimahaiak saria erabakitzerakoan”*.

Saritutako artikuluari dagokionez, begibistakoak badira ere gaiaren beraren sakontasuna, nola hausnarketaren aberastasuna eta zorrotasuna, bada zerbait Epaimahaiak bereziki aipatu nahiko lukeena, hauxe: gure gizartean hainbat eta hainbat tokitan oso hizketagai izan ohi den arazo bat, emakumearena, hain ohikoa ez den ikuspegitik, ekonomiarenetik hain zuzen ere, jorratzen da saritutako artikuluan. Oinarritua da, ez bairik gabe, saritutako lana.

+ Saritutako artikulua: *“Emakumearen arazo ekonomikoaren analisi teoriko orokorra”*, *Uztaro* aldizkariaren 17. zenbakian argitaratutakoa.

+ Autorea: *Mertxe Larrañaga* anderea.

* **4.5.- “Ikusentzunezko erreportaia”** ataleko saria, Epaimahaiak aho batez erabakitakoa eta 425.000,- pezetaz hornitutakoa. Aurtengoa da lehen urtea sari hau emango dena, eta, hasierako hitzetan adierazitakoa gogoraraziz, esan behar da, benetan zaila izan dela irratia eta telebista arteko aukera egitea, saria bakarrik izatean nahitaez egin beharreko aukera. Irrati-erreportaia da aurreko saritutakoa, eta beste ezer baino lehen esatekoa da gaur egun irratian presentzia ttikia duen generoa dela erreportaiarena. Hori horrela izanik, aitortu behar da, ia ordubetera luzatzen den erreportaia izatea ez dela arrazoi makala izan saria erabakitzerakoan. Ia ordubeteko iraupena duena eta, gainera, denbora osoan entzulearen arreta bizirik mantentzen duena. Azpimarratzekoa da irratira egokitze aldera egindako ahalegina.

Garai bateko gertaera bortitz bat oso era sakonean, testigantza pisuzkoen eskutik, aztertzen duen erreportaia dugu saritutakoa. Eta gauzak egoki eta kalitatez egiteko bitartekoak ezinbestekoak badira ere, bitarteko mugatuekin ere, hauek

bikain erabiliz gero, lehen mailako gauzak egin daitezkeela frogatzen duen erreportaia.

+ Saritutako erreportaia: “*Algeriako gerla*”, 1997ko otsailaren 6an *Xiberoko Botza* irratian emititua.

+ Autorea: *Ttittika Recalt* jauna.

* **4.6.- “Komunikabideen berrikuntza”** ataleko saria, hedabideetako lana euskaraz burutzeko berrikuntzarik handiena eta eraginkorrena egin duenari eman beharrekoa. Sari-atal honi buruz oinarriek diotenaren arabera, teknologia eremukoak ez ezik beste zernahi arlotakoak izango dira aintzat hartu beharreko berrikuntzak. Edozein motatako berrikuntzek dute lekua sari-atal honetan. Eta aurtengo saria *ex aequo* ematea erabaki du Epaimahaiak aho batez, hain zuzen ere bi enpresa nahiko desberdinek bi alor desberdinetan “*euskarari eman diote(lako) behar zuen tornua*”. Biok dira, bada, saria jasoko duten komunikabideak:

Ttipi-ttapa eta *Entzun!* aldizkariak.

Ttipi-ttapa izan da euskarazko prentsaren munduan, ez argitalpenaren zati batekin baizik eta aldizkari osoarekin, aldizkariako informazio guztiarekin alegia, edizio elektronikoa Internet sarean eskaini duen lehena. 1996ko uztailaren 5ean hasi zen aldizkari hori Interneteko edizioa argitaratzen. Modu horretara, euskal prentsa amaraun-mundu berrian sartzeko bidea ireki du *Ttipi-ttapak*: nolabait esateko, aldizkari nafarrari zor diogu euskal kazetaritza amaraunean, Interneten, sartu izana. Eta ahaleginak neurtzea egokia ez ezik bidezkoa ere badenez, azpimarratzekoa da toki aldizkari bat izatea urrats hau ematen lehena gure artean.

Entzun! aldizkariak ere, *Ttipi-ttapak* bezala baina beste modu batean, esparru berri bat irabazi du euskarazko kazetaritzarentzat. Kasu honetan euskaraz egindako kalitatezko musika aldizkaria plazaratu dute. Epaimahaiak kontuan izan du modu honetako aldizkariak kazetaritzaren azpigenaro nahiko ezagunak direla beste hizkuntzetan, baina gurean orain arte jorratu gabekoak genituela. *Entzun!* aldizkariak luberriak irabazi ditu euskarazko kazetaritza eta hedabideentzat.

Bistan da, beraz, euskararen erabilerarako mundu berriak eskuratu ditugula *Entzun!* eta *Ttipi-ttapa* aldizkariaren lanari esker.

5.- “Ohorezko Aipamena”. IX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaiak, hainbat aukera aztertu eta gero, aho batez erabaki du aurtengo **Ohorezko Aipamena** Martin Ugalde jaunari egitea.

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren baitan orain arte bi urtetan egin izan da *ohorezko aipamena*. Lehen urtean egin zen lehenbizikoa, 1989an alegia, eta zazpi urte geroago, iaz, bigarrena. “*Eskualduna/Herria*” aldizkariarentzako izan zen lehenengoa. Bigarrena, berriz, iazkoa, 1936an piztutako gerra zibilaren garaiko eta aurreko euskal kazetariei egin zitzaien.

Aipatutako bi kasuetan euskal kazetaritzaren iragana eta etorkizuna uztartu nahi izan zituzten Epaimahaiak eta Andoaingo Udalak. Eta esan beharrik gabe doa arrazoi hori bera dela aurtengo erabakiaren zutoin sendoenetakoa.

Nolanahi ere, Martin Ugalde jaunari *ohorezko aipamena* egiteko erabakia hartzeko orduan baliatu eta azterturiko pisuzko irizpide eta arrazoi ugarien artean, hiru azpimarratu nahi lituzke epaimahaiak:

1.- Erbestean nahiz Euskal Herriratu ondoren, Martin Ugalderen kazetari-senak lekuan lekuko izaten jakin du.

2.- Martin Ugalde aitzindari izan da euskal kazetaritzaren profesionaltasun-bidean: euskal kazetaritzak egitura iraunkorak behar zituela ikusirik, eskergarria da langintza horri eskaini dion ahalegina.

3.- Martin Ugaldek garai bateko euskal kazetaritzaren ekarria eta gaurko kazetaritza berriaren premiak uztartu ditu, ekimen eraginkor eta doan batez.

Honaino, bada, *IX Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion **azken erabakia**, Epaimahaikide guztiok ontzat ematen eta sinatzen duguna gaur, Andoainen, mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpiko ekainaren hogeita zortzian.

Jose Antonio Pérez

Miren Azkarate

Allande Boutin

Anjel Lertxundi

Koldo Ordozgoiti

Iñaki Zabaleta

Patxi Bazterrika